

ZUMAIA / Dirua eta materiala lapurtu dute Forondatik

Ostiral goizaldean ezezagun batzuk Forondako leiho batetik sartu eta lapurreta egin zuten

O. Lete

Ostiral goizaldean ezezagun batzuk lapurreta egin zuten Foronda Kultur Etxean. Dirudienez, lapurrak haur liburutegiko lehioetako batetik sartu ziren eraikinerara eta dirua, argazki kamera bat eta bi ordenagailu lapurtu zituzten. Hala ere, lapurrak ez zuten material guztia eraman, ordenagailuak Forondako inguruetan botata aurkitu baitzituzten atzo goizean.

Materiala eta dirua lapurtzeaz gain, eraikineko hiru bulegotako ateak apurtu zituzten: Ostarrena zine klubekoa, bertako teknikariarena eta Bertso Eskolakoa. Bertako arduradunen esanetan, ez dute diru asko lapurtu, eraikinean ez dutelako kopuru handirik uzten.

Lapurreta hau ez da aurrenekoa izan. Azken bi urteetan bi aldiz sartu dira lapurrak Kultur Etxean.